

Istorioaren egitura (1. taula)

Helburuak / Jakintasunak	Hiztegia / gramatika	Ikasgelaren antolamendua	Jarduerak eta aginduak	Bilana
1. Istorioa ulertu. 2. Zertako gara erein, zergatik errotara eraman, etab. ? 3. Egitura landu.	<u>Hitzak</u> : animaliak, guneak (pentzea, zubia, errota, hondartza, eliza...). <u>Egitura gramatikalak</u> : Zertako lagundu behar da? Non da ? – (e)an Nork ?	Talde handia edo klase erdia. <u>Materiala</u> : – irudiak – paperezko afixa – argazkiak (animaliak, guneak)	<u>Lehen urratsa</u> : Ikasleei irudiak erakutsiz, galde hau egin : « Non da/dira ? » « Zer galdetzen du oiloak ? » Haurrek erraiten dutena idatz. <u>Bigarren urratsa</u> : Afixan irudiak kola, bai eta haurrek erran dutena (edo idatzi) Afixaren titulua : NON / ZER EGITEN DU ? <u>Oharra</u> : Ikasgelako talde erdiarekin lan eginez geroz, ondotik beste erdiari konta.	

Albumaren irakurketa (2. taula)

Helburuak / Jakintasunak	Hiztegia / gramatika	Ikasgelaren antolamendua	Jarduerak eta aginduak	Bilana
1. Adinari doakion istorio bat ulertu. 2. Ulertua dela erakutsi istorioaren nondik norakoa berformulatuz bere hitz propioez. 3. Hiztegi berezia, bai eta joskera, gogoan atxiki. 4. Istorioaren erakaspena aurkitu.	Hiztegia : Animalien izenak : oiloa, xitoak, indioilarra ahatea. Egitura gramatikalak : ezezkoa : – <i>Nik ez !</i> – <i>Nik ere ez !</i> Nor-nork : <i>Nork du eginen ?</i> Hiztegia : Animalien eta lekuen izenak. Egitura gramatikalak : Zer nahi du oiloak ? (Erantzuna : laguntza !) Zeren egiteko ? Erran zaharra : “Egin zazu lana eta ukanen duzu jana.” Elkar lagunduz geroz baizik ez da kausitzen ahal. (Kausitzeko, elkar lagundu behar da.)	Talde osoa. Materiala : - Liburua - Irudien gordetzekoa - Liburuko irudiak plastifikatuak	1. saioa : 10 minutu Albumaren irakurketa, irudiak bederazka erakutsiz : lehenik irakasleak irakurtzen du liburuari so eginez (liburua hari buruz emana) eta gero testuari doakion irudia erakusten du (pareko orrialdea gordez). Irakasleak irudi giblean ordena kronologikoaren araberrako zenbakia eman eta, irudiak banatzen ditu. Istorioa denen artean berrosatuko da, irudiak lurrean edo arbelean ordenatuz. 15 minutu Irakasleak galdeak egiten ditu istorioaz irakurketa egin eta : « Gustatu zaizue ? » « Ongi zen ? Zergatik ? » 2. saioa : kronologiaz, animalien eta lekuen izenez: hurrek margotu dituzten animalien eta liburuaren laguntzaz, istorioaren kronologia berrosatzen da : hurrek koloreztatu animaliak desordenan afixatzen dira. – « Oiloak bere lagunei zer galdetzen die lehenik ? » « Eta gero, bigarrenik, (hirugarrenik, laugarrenik eta abar) ; azkenik ? » Hurrek irudiak ordenatu behar dituzte, liburuaren laguntzaz edo gabe. Egiaztatzen da liburua berriz irakurritz.	« Nik dut lehen (bigarren, hirugarren, etab.) irudia. »

Albumaren irakurketa (3. taula)

Helburuak / Jakintasunak	Hiztegia / gramatika	Ikasgelaren antolamendua	Jarduerak eta aginduak	Bilana
- Adinari doakion istorio bat ulertu. - Taldean eraman elkarrizketa batean parte hartu, besteei behatuz, bere aldiaren beha egonez eta gaitik baztertu gabe. - Istoria ulertua dela erakutsi, istorioaren nondik norakoa berformulatuz bere hitz propioez.	Hiztegia : Animalien izenak : oiloa, xitoak, ahatea, indioilarra. Lekuak (guneak) : Azkaingo zubi erromatarra, landa (soroa, pentzea...) ateka/xeila batekin, Bidarteko Bassilour-ko errota, Donibane Lohizuneko hondartza, Zokoako gotorlekua, Sarako eliza. Egitura gramatikalak : “Nork lagunduko nau garia ereiten ?” “Nork du eginen ?” Nor-nork non / nora nondik / nora	Talde osoa. Materiala : - liburua - irudien gordetzekoa	1. saioa : albumaren azala landu, 5-10 minutuz Haurrei liburua erakusten zaie : « Zer ikusten duzue ? » Erantzunak : titulua, marrazkia, liburu egilea, marrazkilaria... « Animalia batzuk ikusten ditugu : oilo bat bere xitoekin, indioilar bat eta ahate bat. » « Zer galdatzen die oiloak ? » Erantzunak : laguntzea... egiten (aditzak : erein, uzta bildu, eraman, bihiak eho, irina egin, ogia egin). « Zuen ustez, zer gertatuko da ? Zer izanen da istorioa ? » Erantzunak : nola gerta, haurren arabera... « Nor den xuxen jakiteko, liburua irakurriko dugu. » « Zer egin behar da jakiteko zer den istorioa ? » « Liburua irakurri behar dugu. » 10 minutuz Albuma burutik buru irakurri, irudiak bederazka erakutsiz : lehenik irakasleak irakurtzen du liburuari so eginez (liburua hari buruz emana) eta gero testuari doakion irudia	<u>1- Albumaren azala landu :</u> Titulua, marrazkia, etab. Azala nola osatua den aurkitu. - Animalien izenak ezagutu (oilo, xito, indioilar, ahate) azalean berean. - Saiatu istorioa zer den erranarazten (menturaz jadanik ezagutzen dute... dena den istorio bera beste album batzuen arabera erakutsiko zaie (ikus <i>La petite poule rousse</i>) Tituluari behatuz, haurrak euskararen fonetikari ohar daitezke, irakurketaren lehen urratsetan. Album barnean, halaber. Testu egin ahala sinple da, egitura berak errepikatuz. Gisa horretan, istorioaren bizkarrezurrak diren erranaldiak gogoan atxikitzen dituzte haurrek. Beste bide bat erranaldi horiek gogoan har ditzaten : irakurri, irudiak erakutsi gabe, haurrek istorioa beren gogoan irudika

			erakusten du (pareko orrialdea gordez). 15 minutuz Irakasleak galdeak egiten ditu istorioaren irakurketa egin eta : « Gustatu zaizue ? » « Ongi zen ? Zergatik ? » 2. saioa : Irakurtzen hasi aitzin, azala erakutsi eta istorioa zer zen galdegin. « Zertaz zen istorioa ? » « Nor da pertsonaia nagusia? » « Nor ikusten du ? » « Zer bilatzen du ? » Istorioa osoki berrirakur irudiak erakutsiz. Beharrez, galde berak irakurketa egin eta. <u>Xedea :</u> - Hurrek ulertu behar dute deus ez dela lortzen lan egin gabe eta lagunen artean elkar lagundu behar dutela. - Hurrek beren iritzia adierazi behar dute, testuari, irudiei eta lekuei begira (bizi dutenaren arabera, adib. hondartza).	dezaten. Beste urrats bat : istorioaren irakurketa geldi, hurrek istorioaren bukaera asma dezaten. Haurren hipotesiak aztertuko dira. <u>2- Galdeak</u> « Istorioa gustatu zaizue ? » « Ongi zen ? » « Istorio honen erakaspena zer da ? » Erantzunetarik : « Elkar lagundu behar dugu ». « Zerbaiten ukaiteko lanean arizan behar da. » « Alfer egonez, deus ez da irabazten. » Eztabaidatzen trebatu, nork bere iritzia ukaiten eta defendatzen.
--	--	--	---	---

Albumeko animaliak bezala ibili (4. taula)

Helburuak / Jakintasunak	Hiztegia / gramatika	Ikasgelaren antolamendua	Jarduerak eta aginduak	Bilana
1. Gorputzez, pertsonaia batzuk adierazi. 2. Adierazi bere burua, libreki edo erritmo sinple bati jarraikiz, izan dadin musikala ala ez, materialarekin edo gabe. 3. Arauak ulertu eta egintza kolektiboetan parte hartu.	<u>Hiztegia</u> : Animalien izena : lehenik liburuko animaliak gero luzatu baserriko animaliekin (untxia, ardia, behia, etab. bezala). Fite, emeki. <u>Egitura gramatikala</u> : <i>Izan aditz laguntzailea hirugarren pertsonan.</i>”	Bakarkako lana eta lana talde osoan. <u>Materiala</u> : - atabal bat - irudi zenbait : sugea, igela oiloa, arraina...	1. Irakasleak animalia bat erakusten du eta ikasleak hura bezala ibilitzen dira, atabalaren soinua gelditu arte. « Atabala joko dut eta ez duzuelarik gehiago entzunen geldituko zarete. » Ikasleak ez badira gelditzen, joko bera egiten da baina libreki ibiliz. 2. Haur bati irudi bat erakusten zaio eta besteek berdin egin behar dute. 3. Haurrak lasaitzera ekar.	

Albumeko animaliak bezala ibili (5. taula)**Eskulanak : « paperezko oiloak » eta xitoak**


Helburuak / Jakintasunak	Hiztegia / gramatika	Ikasgelaren antolamendua	Jarduerak eta aginduak	Bilana
1. Sentiberatasuna eta adierazteko ahalak garatu. 2. Nork bere buruaren adierazteko hobekienik laguntzen dituzten material, tresnak eta teknikak ezagutu. 3. Bi edo hiru dimentsioko obra plastikoak ezagutu : bolumenak erabil, adib. dildailua (fr. pompon).	<u>Hiztegia</u> : ttipia, haundia, zabala, borobila, luzea, motza, pisua, arina, okerra, zuzena, etabar... Xitoak Oiloa <u>Egitura gramatikalak</u> : « Nolakoa da? Zerez egina da ? »	Bi atelier. <u>Materiala</u> : - artile horia - papera - kartoia - kola - tinta	Haurrak bi taldetan banatuak dira. Jarduerak : Higikari (fr. : « mobile ») baten egiteko, xito batzuk eta liburuan bezalako oilo gorri bat. Jende heldu baten laguntzarekin azalpenak ematen dituen fitxa bat aztertu eta eraiki.	

Xitoa :

Xitoa bi dildailuz (fr. : pompon) egiten da, bata gorputzarentzat eta bestea buruarentzat.

Dildailuaren egiteko :

- 1- Bi zirkulu berdin kartoian pika
- 2- Artilez ingura erdiko ziloa betea izan arte.
- 3 - Artilezko hariak pika aixturrak kartoizko borobilen artean pasaraziz.
- 4- Hari bat pasa borobilen artean eta finki lot.
- 5- Kartoizko borobilak ken.



Borobil modelo handiena gorputzarentzat, besta buruarentzat. Modelo bakoitza bi aldiz pikatu behar da kartoian.



Hanka modelo bat



Mokoa



Begiak

Bi dildailuak elkarri lot.

Bi hankak pika kartoian, eta kola dildailuzko gorputzaren pean.

Mokoa margo eta kola, berdin begientzat.

Eta horra, xitoa sortua da !









Albumeko animaliak bezala ibili (6. taula)

Helburuak / Jakintasunak	Hiztegia / gramatika	Ikasgelaren antolamendua	Jarduerak eta aginduak	Bilana
1. Pertsonaia batzuk gorputzez adierazi. 2. Nork bere burua adierazi, libreki edo erritmo sinple bati jarraikiz, izan dadin musikala ala ez, materialarekin edo gabe. 3. Arauak ulertu eta egintza kolektiboetan parte hartu (orkestra-gidariaren jokoa).	Hiztegia : Animalien izenak : oiloa, xitoak, indioilarra, ahatea... eta gero xakurra, ahuntza, zaldia, untzia, xerria, etab... Fite, emeki. Egitura gramatikalak : « Nola ibili da ... ? » « ... zaldia bezala ibili da. »	Bakarkako lana eta talde osoko lana. Materiala : - atabal bat - album bat.	1) Ikasleek albumeko animalien izenak oroitarazten dituzte eta bederazka mimatzen. 2) Ikasleak aipatu animaliak bezala ibiltzen dira atabalaren erritmoari jarraikiz. 3) Orkestra-gidariaren jokoaren arabera, ikasleek gidariak hautatu animalien mugimenduei jarraiki behar zaizkie. Irakasleak jokoa abiatzen du. (« Orain nik animalia batzuk mimatuko ditut eta zuek ni bezala egin beharko duzue. Kasu ! ongi begira eta animaliaz aldatu arau, zuek berdin egizue. ») Aginduaren berformulazioa. Gidaria aldatzen den guzietan, ikasleek ordura arte mimatu animaliak oroitarazten dituzte. « Nola ibili da ... ? » « ... erbia bezala ibili da. » 4) Haurrak lasaitzera ekar : irakasleak albuma berriz irakurtzen du eta antzezpenaren egiteko proiektua aurkeztzen. Hizkuntzaren lantzeko, egina izan dena haurrei erranaraz.	Haurrak luzago utz xerkatzen eta jardueran sartzen. Haurren ibilarazteko : ikasleak taldeka antola eta ikasgelaren puntu desberdinetatik abiaraz. Errimoa landu atabala joz : emeki, laster, inarroska (rythme saccadé)... Haurra nola ibilaraz : pisu balira bezala arin balira bezala.

Albumaren kronologia berrosatu (7. taula)

Helburuak / Jakintasunak	Hiztegia / gramatika	Ikasgelaren antolamendua	Jarduerak eta aginduak	Bilana
4. Albumaren kronologia berrosatu. 5. Irudi sekuentzialak ordenatu.	<u>Hiztegia</u> : Animalien izenak eta kokapena : non dira ? – baserrian – landan – errotan – zubian – hondartzan – elizan. <u>Egitura gramatikalak</u> : Lehenik, bigarrenik ... ordinalak « Lehenik, oiloak...»	Bakarkako eta talde tipiko lana. <u>Materiala</u> : - albumeko irudiak - irudien kolatzeko fitxak (frisoa) - kola - aizturak - eredia	Haurrak binaka dira eta albumeko irudiak ordenan ezarri behar dituzte. (Haien laguntzeko, nonbait ikasgelan eredia afixatuko zaie.) Jarduera bukatzean, lana ebaluatuko da irakaslearen eta liburuaren laguntzaz. <u>Besterik</u> : - Ziloz beteriko kronologia : ikasleek frisoan falta diren irudiak aurkitu behar dituzte. - Ebaluaketarentzat : irakasleak egin frisoa erabili orde, hurrek liburua eskuetan hartuko dute eta sekuentziak ongi kokatuko.	

Albumaren titulua berrosatu (8. taula)

Helburuak / Jakintasunak	Hiztegia / gramatika	Ikasgelaren antolamendua	Jarduerak eta aginduak	Bilana
1. Erranaldiak berrosatu edota berridatzi. 2. So egiteko arreta. 3. Lan egiteko jokabideak aurkitu.	<u>Hiztegia</u> : Titulua/ izenburua Moztu Kolatu Margotu Osatu <u>Egitura gramatikalak</u> : « Behar duzue/behartu dituzue », adib. « Etiketak moztu behar dituzue. »	Bederazkako eta talde tipiko lana. <u>Materiala</u> : - azalaren fitxa - tituluaren eredua - hitzen etiketak - aizturrak - kola - feltroak.	Haurrek albumaren titulua berrosatu behar dute eredu baten arabera. Eredua ez zaie emana baizik eta ikasgelako leku batean afixatua. Haurrek erranaldiaren gogoan atxikitze eta berrosatzeko jokabideak finkatu behar dituzte. Lan horren egiteko, material hau banatzen zaie : azaleko irudia dakarren fitxa bat eta izenburuko hitzen etiketak. Titulua berrosatu eta, irudia margotuko dute. Agindua : « Liburuaren titulua berrosatu behar duzue. Hortako, etiketak moztu behar dituzue, eta ordenan kolatu, ereduari begiratu » (haurrei erakutsiz eredua non den). Titulua bukatu eta, animaliak margotu behar dituzue. » Trebeek titulua berridatz dezakete kolatzeko orde edo kolatu ondok. Liburu barneko erranaldi luzeago bat edo batzuk ere proposatzen ahal zaizkie.	Lan teknikoa da ; ez du istorioaren ulermena laguntzen. Bizkitartean, ariketa hori gustatu zaie haurrei eta hortan trebatuak dira. Den gutienetik lau jokabide erabili dituzte. Atelier honetan, autonomian uzten ahal dira haurrak.

Animaliak koloreztatu (9. taula)**Eskulanak**

Helburuak / Jakintasunak	Hiztegia	Ikasgelaren antolamendua	Jarduerak eta aginduak	Bilana
4. Eremu mugatu bat bete. 5. Irudi bat koloreztatu ilustrazioaren kolorei jarraikiz.	<u>Hiztegia</u> : Koloreen izenak Animalien izenak.	Talde ttipia. Ikasgelaren erdia. <u>Materiala</u> : - animalien irudien fotokopiak - klera gizenak - koloreen ikusteko liburuak - aizturrak - makilttoak - xingola itsaskorra - lumak	Haurrek animalia bat hautatzen dute, izendatzen eta koloreztatzen, bazterretatik hara ibili gabe. Inguruz-inguru mozten dute eta makila baten puntan kolatzen. Antzerki eta motrizitate lanetan erabiliko dira. <u>Besterik</u> : Ilustratzailearen teknika ikertu, probatu, material mota anitz eta fotokopiak erabiliz.	

Azalaren puzzlea (10. taula)

Helburuak / Jakintasunak	Hiztegia	Ikasgelaren antolamendua	Jarduerak eta aginduak	Bilana
– Irudi baten puzzlea berrosatu. – Idazlearen eta ilustratzailearen izenak aurkitu, bai eta izenburua eta argitaletxea.	<u>Hiztegia</u> : Titulua Idazlea Argitaletxea	Talde ttipia, bakarkako lana. Materiala : 6. Azalaren fotokopia 7. Fitxa 8. Aixturak 9. Kola 10. Liburua edo fotokopia 11. Kolorezko arkatzak	<u>Agindua</u> : « Liburuaren azalaren puzzlea berrosatu behar duzue. » Hortako, irakasleak moztu zatiak lehenik margotzen dituzte eta gero elkarri lotzen. Egiaztatzen dute ereduari begiratzuz. Hurrei galdeak egiten zazkie : Non da Titulua ? Non da idazlearen izena ? Non da argitaletxearen izena ?	

Jardueren luzamenak :

11. taula

Idazketa :

- Animalien gorputz atalez : eskema batean, atalak seinatu (munduaren ezagutzaren sailari lotuz).
- Erranaldian aldatzen den hitza aurki eta ingura.

Munduaren ezagutza : albumeko animalien bizitza :

- haragijalea/belarjalea
- bizilekua : lur gainean / lurpean

Erakusketa bat antolatu

Gari bihiekin irina egin edota irinarekin ogia. Argazkiak har, leiendak egin eta erakusketa bat antola daiteke.

Ogiaren egiteko errezeta :

Osagaiak :

12. 500 g irin
13. basotara handi bat ur bero
14. okindegiko altxagai zakuto 1
15. gatza (koilaratara ttipi bat)
16. Olio (oliba, eguzkilore...) koilaratara handi 1

Katilu handi bat hartu. Osagai guztiak barnean eman. Osagaiak eskuz nahas, ore malgua eta kolatzen ez duena kausitu arte (oreak kolatzen badu, irin pixka bat emenda).

Bola bat sortu ; ontzian utz eta ontzia eskutrapu busti batez estal.

Orea pausatzen utz oren batez giro-tenperaturan (20° C minimoa).

Ongi kausitzeko : orean prestatu artean, labean 5-10 minutuz beroarazi.
Orea bukatu eta, itzalia den labean utz. Aiseago hantuko da !

Gero, egiazta orearen bolumena bizpahiru aldiz handiagoa dela. Mahai batean, irin pixka bat zabal eta orea gainean eman.

Artean, labea 210° C-tan (Termostat 7) beroaraz.

Zuen irudimenaren laguntzaz, oreari nahi duzun forma eman.



Ogia labean ezar 15-20 minutu (artetan so egin). Eta horra, ogia egina duzue !

Musika :

Animalien orroak.

Beste ideia andana bat

- Txontxongilo antzerkia muntatu.
- Istorioa antzeztu.
- Audio CD bat grabatu.
- Liburuaren gaia adierazten duen afixa bat egin (pintura, arkatzak, argazkiak etab. baliatuz).
- Pertsonaia berak baliatuz, istorio berri bat asmatu.
- Istorioaren gertakari nagusiak adierazten dituen marrazki bat egin.
- Istorioaren gertakizun eta pertsonaiei buruz asmakizun joko bat egin.
- Gertakari nagusiak marraztu eta marrazkiak denbora-lerro batean ezarri.
- Egileari gutun bat idatzi, ipuina irakurtzerakoan sentitu dutena adieraziz.
- Pertsonaia batentzat opari bat marraztu, hautuaren arrazoinak emanaz.
- « Didapage » (liburu numeriko interaktibo) bat egin.

Bibliografia :

<http://materalbum.free.fr/al3.htm>

Poule rousse, Les albums du Père Castor, éd. Flammarion

La petite poule rousse – Byron Barton – Nouvelle édition – Ecole des loisirs